

JOSE ANTONIO ARKOTXA MARTIJA (1911-1996)

Bilbo, 1996-V-31

Jose Antonio Arkotxa Martija urgazle mutrikuarra aurtengo martxoaren 17an hil zen Donostian. Mutrikun 1911.eko martxoaren 29an jaioa zen.

Bere lehen ikastaroak Mutrikun bertan egin zituen. Bere aita arrantzalea eta bere ama etxekandre irakurle trebatua, hortik sortu zitzaion nonbait literaturarako zaletasuna. Bost anai-arreba izan ziren.

Hemeretzi urterako hasi zen idazten. *El Día*, *Argia* eta *Euzkadi* aldizkarietan.

1936ko gerrate hasieran, espainiar tropak sartu aurretik, Mutrikuko jendeari herritik aldegiten lagundu eta gero, Ziburu aldera jo zuen eta han bizi izan zen bederatzita hila-betez. Ondorean, hegoaldera pasa ta gero, gerran parte hartu zuen eta laster etsaien esku erori eta gartzelaratu zuten, komunikaziorik gabeko gela berezi batean sartuz, hiltzera



kondenaturik. Han eduki zuten hilzorira kondenaturik zeuden beste lagun batzuekin eta egun pare bat falta zirela indultatu zuten.

1941ean ezkondu zen Serafina Ituarterekin Mutrikun eta arrantzale izan zen garai hartan, 1943an Ondarrura bizitzera joan ziren arte. Han kontabilitateburu bezala hasi zen lanean, bere kabuz ikasi zuen ofizio hartan, eta han bizi 1984ra arte. Urte horretan Erreteriarra bizitzera aldatu zen eta handik, 1995ean, Donostiara.

Atxukale, Joxe Antonio eta Kirolzale izenordeak erabili zituen zenbait idazlanetan. Honako aldizkari hauetan idatzi zituen bere artikulu lanak: *El Día*, *Argia*, *Euzkadi* aipaturiko hoiiez gainera, *Zeruko Argia*, *Timón*, *Stella Maris*, *Egan*, *Agur* eta abar. Baina, bereziki, antzerki eta irrati saioetan nabarmendu zen gehienbat.

Zenbait urtez “La Voz de Gipúzcoa” irratian, Atxukale izenpean aritu zenean, urrats bikainak eman zituen euskararen alde. Mutrikuko hizkera herriko bizi-bizia zuen el-karrizketen oinarri. Beraz, ez zen harritzekoa, 1961ean “Arraisaltzalleak” eta “Egia ta Erria”rekin Donostiako Centro de Atracción y Turismo delakoak antolatutako irrati saioen gidoi lehiaketaren irabazle izatea.

1965. urtean Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen.

Baina, bereziki, antzerkigilea genuen. Gaur egun Eibarko Armeria Eskolaren zuzendari den bere semearen laguntzari esker osatu ahal izan dut haren antzerkigintza lana. Aita bezala, Jose Antonio deitzen da eta hura bezala adiskide dut. Antzerkirik gehienok irakurriak ditu berak eta irizpidea eskatzean, hara zer dion: “Esango nuke, dramaturgo kostunbrista zela, bere «txispa» edo humore piskatekin. Berak, batez ere, jendearen barruko sentimenduarengana jotzen zuen, naiz idazle naiz aktore bezala. Egia da bai, gaztetan humore oneko antzerki alaictan parte hartzea atsegin zuela eta baita ere alai zela, baina esango nuke batezere tragikomedia zuela maite”.

Lehendabizikoa, hiru ekitaldiko *Arno-pe* (1949) izan zen, urte berean, ekitalde bakarreko *Nork nori ziria sartu?* (1949) zeritzona eta ondotik, eten gabe jarraitu zuen, beste honako hauekin, *San Piñastei eguna* (1951), *Ankerki ikusketa berezia* (1954) ekitaldi bakarrekoa, *Arantzazuko Anai Patxi* (1956) hiru ekitaldikoa, *Gabon-gabontzeta* (1956) ekitaldi bakarrekoa, *Lenizko alaba* (1959) hiru ekitaldikoa, *Brokel jauna* (1964) hiru ekitaldikoa Iturrinoren “Markesaren alaba” bertsoetan oinarriturik, *Josan* (1965) hiru ekitaldikoa maitasun gaiez, *Porteraren semea* (1967) hiru ekitaldikoa gizarte (sozial) gaiez, *Naximendu berria* (1969) ekitaldi bakarrekoa, *Itxas lan-brotan* (1970) hiru ekitaldikoa, *Tan tarran... tapatatan* (1971), *Josemaritarrak* (1981) hiru ekitaldikoa, eta *Kresal txipristiñak* (1982) hiru ekitaldikoa arrantzale bizimoduaren oinarriturik. Gehienok umorezkoak eta publikoan aurkeztuak ziren, maiz egilea berak aktoretzan parte hartuz.

Aurkeztuak izanarren, inon argitaratu gabe gelditu ziren, bat ezik. Hori, *Gabon-gabontzeta*, Mutrikuko Gabon ohituretan oinarritua da, 1956ko sariketa batean aipamen berezia izan zuena eta, ondoko urtean, 1957an, *Egan*-en argitaratu zenezkero neurri batean har daiteke bere antzerkigintzaren agerbide gisa. *Lenizko alaba* (1959) deritzonak ordea Bedoñan “Loramendi”ren omenez eratu zen antzerki lehiaketan bigarren saria jaso zuen. *Antzerki ikusketa berezia* 1954.ean Zarautzen saritua izan zen. *Tan tarran... tapatatan* eta *Joxemaritarrak* ere 1981ean Bilbon saritua.

Brokel jauna, lehenago saio gisa edo 1949an egin zuten *Arno-pe* zeritzanetik osatua da. *Tan tarran... tapatatan*, 1971an idatzitakoa, 1981an euskara batuan jarri zuten. *Kresal txipristinak* (1982) ere egungo euskara batuaren ortografiaz agertzen da.

Izatez gizon ona zen benetan eta ezagutu genuen guztiok maitatua. Umore onekoa, baina aldi berean oso apala. Ez dakit arrazoi horregatik edo argitaratzeko utzi zituen antzerkirik gehienok. *Egan* literatur aldizkariaren arduradun nengoela ahalegindu nintzen horiek eskuratzera, han argitaratzeko asmoz, baina bere erantzuna: antzezteko eginak zirela eta ez zuela argitaratzeko lehiarik.

Fede zintzoa zuten eta zerurik bada han izango da (G.B.).

Juan San Martin